

BIZKAIA 7TIK 9RA

7 eta 9 bi zenbaki besterik ez diren arren, Bizkaiko zailtasuneko eskaladaren adierazle izango dira artikulu honetan, zailtasun eskaladak herrialdean izandako garapenaren adierazle izateaz gain.

TESTU ETA ARGAZKIAK



Alexander Arrizabalaga
Estibaliz Kerexeta

Bikote honek bizitza osoa darama eskaladari lotuta. Alex mendi gidaria da eta Esti, geologoa, irakasle lanetan ari da. Aipatzekoa izan da, era berean, beraien jarduera Mendi Federazioan: Euskal Goi-mendi eskolako instruktoreak dira eta gaur egun formakuntza zabaltzen jarraitzen dute.



1987an, Urrestein (Untzillatxeko hego-mendebaldean) bide berri bat zabaltzea erabaki genuen: Clytemnestra (V+), Micenaseko erreginaren omenez, susmatu barik 30 urte beranduago Peloponesoko eskualde hori gure eskalatzeko hormarik gogokoenen lekuko bihurtuko zela eta era berean bide hori berrekipatuko genuela 40 metrora arte luzatuz, 7a mailako zailtasunarekin. Horretan datza garapenak: geroz eta hobeto aritu, bide geroz eta zailagoetan. Era berean, gu bezala beste hamaika eskalatzaile ere

bide berriak asmatuz eta ekipatuz, guztion artean eskaladaren maila gorantza bultzatuz. Fenomeno hau mundu guztian ematen da, baita Bizkaian ere.

Erreferentzia bat izateko asmoarekin egokitu ohi zaio zailtasun maila bat bide jakin bati. Esleipen hau, jakina, erabat subjektiboa da. Artikulu honetan eskala frantsesean oinarritutako 7. eta 9. graduko bide batzuez hitz egingo dugu zailtasun eskaladaz aritzeko. Honek ez du esan nahi askorentzat 7. graduaren azpitik dauden

"Azumi" bidea proiektuan, Atxarteko sektorean



bideak zailak ez direnik edo eskalatzailak batzuk 7. eta 8. gradu bideak erraztasunez lortu ezin ditzaizketenik. Izan ere, gradu batek duen zailtasuna norberaren mailaren arabera izango da.

1936. urtean Untzillatxeko "Normal de Urrestei" bidea eskalatu zen, D inf (Difícil inferior) eta V- gradu pauso bateko zailtasunaz baloratuz; ia 30 urte beranduago Astxikin "Normal del 3er espolon" bidea eskalatu zen MD (muy difícil) eta V. gradu pausoekin. 80 urte pasatu dira eta 9. gradura heldu gara; denbora tarte honetan asko da aldatu guztia.

Bizkaia denontzako erronkak eskaintzen ditu: ikasteko eta eskarmentua lortzeko bide errazak bilatzen dituen hasiberrik, muturreko bideak eta proiektuak bilatzen dituen goi mailako kirolarira arte. Badira dagoeneko 9. gradu proposamenak Bizkaian eta asko dira, bastalde, lehendabiziko igoeraren zain dauden proiektuak.

7. eta 8. gradu eskalatzailak horma aproposak aurkituko dituzte Bizkaian orientazio eta estilo ezberdinekin, edozein urtarotan gogor ekitea ahalbidetuko dutenak.

Eskalada bideak zabaltzea garestia da eta askotan gure gain hartzen dugu lan eta gastu hori guztia; honek bide berrien agerpena asko moteltzen du. Esaterako, datorren denboraldian Atxkoban zailtasunezko proiektu bat berrekipatuko dugu. Azken boladan material eta aleazio berriak eta hobeak merkaturatu dira. Adibide garbia da Fixe etxeko PLX HCR delakoa, zeinak korrosioarekiko erresistentzia handia eta erresistentzia mekaniko handia eskaintzen duen. Ohikoak baino material garestiagoak dira, baina errikoak usu gertatzen diren hau bezalako hormetan segurtasun eta iraunkortasun handia ematen dute.

Hala ere bagara nor zailtasunaren unibertsoan eta ez da harritzekoa munduko edozein bazterretako eskalatzailak gure lurraldean ikustea, Baltzolan bereziki, 2014an Txekiako maisu handi Adam Ondrak estraineko saiakeran "Il Domani - 9a" bidea lortu zuenetik, batez ere. Oso bide preziatua izanik, nazioarteko he-dabideetan oihartzun handia izan zuen eskalatzaila txekiarraren balentriak.


Berriki hemengo eskalatzailak 9. mailako bideak kateatzea lortu dute Atxarten, Sagastako Atxkoban; apurka-apurka bertako bideak kateatzen ari dira baina aldi berean bide berriak sortzen doaz.

Bizkaia 2217 km karratuko azalera dauka guztira eta bertan 26 eskalada gune zerrendatu dira, betiere Bizkaiko Foru Aldundiak araututako erregulazioaren eraginpean (murrizketak daude zenbait eremutan):

http://www.bizkaia.eus/Home2/Archivos/DPT02/Temas/Pdf/agricultura/Espacios%20Naturales/ca_Anexo_1_Mapas_zonas_de_eskalada_de_Bizkaia.pdf?hash=cb7ea4357c8ac2dba4595ab950baa9f4

http://www.bizkaia.eus/home2/Temas/DetalleTema.asp?Tem_Codigo=6386&Idioma=CA

Artikulu honetan eremu horietako batzuen zertzeladak ageri dira, gogor eskalatu nahi izanez gero kontuan hartu beharrekoak, aipatzen ez direnak gutxietsi gabe, noski. Ez dira sektoreetako krokisak argitaratuko, Euskalarrria gidaren azken edizioan jasotzen baita horren inguruko informazio guztia (Atxkoba izan ezik).



ESKALADA EREMUAK



Atxarteko "Para calentar" bidean, bete-betean

1. MUGARRA

Mugarra Durangaldeko gailur ikusgarria da. Tontorra 946 metrora dago baina 180 bat metro beherago belardi zoragarri batean har dezakegu atsedean eta hegoaldera begira dauden hormen gaineko ikuspegiak gozatu. Bertan 43 bide inguru daude, horietako lau 4 luzetako bideak dira eta 20 bide baino gehiago 7. mailatik gorakoak dira ; 8c mailako bide bat dago eta baita zenbait proiektu ere. Neguko egun eguzkitsuetan eskalatzeko eremu aproposa da Mugarrakoa.

BIDEA: TORMENTA DE VERANO (8a)

Tormenta de verano Mugarrrako 8a zailtasun mailako bide paregabea da. Bertikaltasuna gainditzen duen horma honetan indarra gogoz erabiltzea eskatuko duten pausoak agertuko dira, erregeleta onak mota guztietako heldulekuekin tartekatuz. Eskuilatxo bat eramatea gomendagarria da beheko zatian liken zuria sortzen delako, nahiz eta ez duen igoera oztopatzen. Ondo begiratuta atsedean-lekua ere aurkitu ahal izango dugu besaurrean pilatutako laktatoa arintzeko. Gozatzeko bidea, edozein kasutan.

Mugarrrako "Tormenta de verano" bidearen krokisa





Atxarteko "Clytemnestra" bide ikusgarria

2. BALTZOLA

Baltzola Arratiako interes turistikodun txoko ezaguna da, ikuspegi arkeologikotik eta paisaiari dagokionez balio handiko haitzuloak baitaude bertan. Eskalatzailleen artean kezka handia sortzen hasi da orain gutxi Eusko Jaurlaritzak "monumentu-multzoz" kategoriarekin kultura-ondasun izendatu baitu eremua (EHAA, 2017ko azaroaren 20a). Momentuz eskalatzeari baimenduta dago (arkeologia lanak indarrean ez dauden bitar-

tean) baina Baltzola eta Erdikoate arteko eremuan ezin da bide berririk zabaldu, ezta dagoeneko dauden bideak ber-ekipatu ere. Araudiak jarduera Gibeltar sarrerara eramatea eskatzen du.

Edozein kasutan Baltzola mundu mailako erreferentzia da: zailtasunezko eskaladan 8. mailako bideak nagusi dira bertan dauden 60 bideen artean, 9. mailako bide bat baino gehiago eta lortu ez diren zenbait proiektu ere badaudelarik. Urte osoan zehar eskalatu daiteke bertan, nahiz eta kontuan hartu behar den kobazulo bat



Urresteiko "Clytemnestra" (gorriz) eta "Azumi" proiektua (horiz)

ez du askorik lagunduko bide honetan. Bata bestearen atzetik doazen bloke multzo gogor batek helduleku hobeak eskaintzen dizkigun zatira eramango gaitu, pisuaren aldaketekin etengabe jolas egitera behartuz. Zailtasun maila konstante mantentzen duen egundoko bidea da, eskalatzaileari daukan onena ematea eskatuko diona. Expresak jarrita egon ohi diren arren biziki gomendatzen da norberak bereak erabiltzea zinta zaharkituen apurketak ekiditeko.

Baltzolako "Nanai" bidean



izanik teknika berezia behar izateaz gain egun guztiak ez direla aproposak izango bertan jarduteko sortzen den kondentsazioa dela medio.

BIDEA: NANAI (8c+)

Nanai intentsitate handiko 8c+ mailako bide bat da, Baltzolako ohiko eskaladarekin alderatuz zertxobait ezberdina. Izan ere, ko-bazulo honetan asko erabili behar den kneebar delako teknikak

ESKALADA



Urduliz sektoreko "Urkatt" bidean

3. ATXARTE

Zaila da Atxarten zenbat bide dauden zehaztea. Argia ikusi duen gida monografiko bakarra kaleratu zenetik 30 urte baino gehiago pasatu dira, tartean bide berri asko irekiz eta zailtasun maila esleitzeko irizpideak aldatuz. Sektore batzuetako krokisak argitaratu nahi ez izateak ere zenbaketa zailtzen du. Zenbaki borobil bat esate aldera, 500 bide inguru egon daitezkeela uste da, orientazio eta estilo ezberdinetakoak.

BIDEA: AZUMI (KATEATZEAR)

Azumi, "bigarren harria"-n, Urresteirako bidean "Nodo" delakoaren ezkerretara dagoen sektore txikian aspaldi ekipatu genuen bide bat da. 15 metroko bide honek oraindik ebatzi gabe dauden 2 bloke gogor ditu; gainera, duela gutxi helduleku bat apurtu zitzaigun, are gogorragoa bihurtuz bidea bera. Eskalada honek plaka eta sabaia konbinatzen ditu, heldulekuak orokorrean erregeleta txikiak dira eta helduleku zapalen bat. Hego-ekialdera begira azkar lehortzen den bidea da.

BIDEA: "PARA CALENTAR" (8a)

"Para calentat" ez da "berotzeko" bide bat, hego-mendebaldera begira dagoen Isla de la Tortuga sektoreko 8a zailtasun mailako

"Urkatt" bidea, Urdulizen



bide bat baizik. Hasiera korapilatsua du eta gero eutsi egin behar zaio. Adi, hala ere, erne ibili ezean ezustekoa eraman baitezake eskalatzaileak katera heldu aurretik... Bi eta hiru atzamarretarako heldulekuak txandakatuz doaz alderantzizko helduleku eta helduleku zapalekin, elkarketa dibertigarri bat osatuz bertikaltasunaz haratago doan bide honetan disfrutatzeko.

BIDEA: CLYTEMNESTRA (7a)

Hasieran bide honen berri eman dizuegu jada, apurka-apurka bertikaltasuna irabazten eta gainditzen doan Atxarteko kare-harri bikaineko plaka batetik. Zailtasuna goiko atalean kontzentratzen da eta ekipatuta dago zailtasun hauetan estraineko jardutera doan eskalatzailea gogoan, zati gogorrean aseguruak elkarrengandik hurbilago izanik. Benetako zaleentzako 7a zailtasun mailako eskalada bide bat. Oharra: 80 metroko soka eta 16 expres +R beharko dira.

BIDEA: PETER NORTH (KATEATZEAR)

Pyrenaica aldizkariko ale hau argitaratzerako eta eguraldiak hala baimentzen badu Atxkobako (ipar isurialdea) bide hau ber-ekipatuta egongo da jada. Oraingoz proiektu soila da eta ez gara zailtasun maila bat proposatzera ausartzen baina ziu-

"Peter North" bidearen krokisa





"Peter North" bidea berrekipatzen

rrenik 8.era helduko da. Bere lehenengo igoeraren zain dagoen bide luzea da, desplomatua, mota askotako heldulekuak dituen kareharri on batetik. Oharra: 80 metroko soka eta 16 expres +R beharko dira.

4. URDULIZ

Urduliz Uribe Kosta eskualdeko udalerrri bat da; herrigunetik eta metro geltokitik 400 metrora Santa Mariako haitzak altxatzen dira. Aintzinako hareharrizko harrobi honek 62 bide eta proiekturen bat biltzen ditu; ez da bereziki ezaguna dauzkan bideen zailtasun mailagatik, baina horrek ez du esan nahi bide guztiak errazak direnik. Finkatuta dagoen zailtasun maximoa "7c"-koa da baina Bizkaian ezohikoa den harri mota honek eskalada hau bitxia izatea eragiten du: oso teknikoa eta fina. Iparralderantz begira dagoenez (eta hondartzatik 8 Km-ra) udarako oso aproposa da.

BIDEA: URKATT (7b)

Urkatt oso teknikoa den 7b zailtasun motako bide bat da. Hareharri bihurrian burutuko ditugun palmeoek eta helduleku ka-

mutsek geure lekuan utziko gaituzte eroen gisan ekiten badiogu bideari. Oinak ondo erabiltzea ezinbestekoa izango da bizepsarentzat lan gutxi dagoen bide honetan.

Bideak ekipatzeaz ari garela, kontuan hartu behar da eskalatzailerentzako gozamenerako gutxi batzuk egindako lana dagoela atzean, kostu ekonomikoa ere baduena, gainera. Bidezkoa da lan horretan ari diren guztiei eskerrak ematea. Urkatteko Javier Antilleraren (material eta tresneria hornitzailea) laguntza nabarmendu nahi dugu. Artikulu honetako Urkatt, Clytemnestra, Azumi eta Peter North bideak berari esker berrekipatu dira.

Ikusten denez denetarik eta denontzat dago Bizkaian: bide luzeak, laburrak, bertikalak edo sabaiak, hegoalderantz zein iparralderantz... urte osoan zehar eskalatzeko modukoak. Artikulu honetan dozena erdi aipatu ditugu baina milaka daude, tartean baita bakoitzaren ametsetako erroka ere. Ingurunea errespetatuz eta zuhurtasunez jokatzuz, gozatzeko aukera paregabea. Gogoan hartu ohiko arauak: elkarren kontrola egitea, ohitu, sokaz lotzen hastean amaitu arte ez beste ezertan aritu, sokaren bukaeran korapiloa egin eta... kaskoa buruan ibili munduan!